



Ekintzaren iraupena: 1h

Eduki eta metodologia aldetik aitzindaria den proiektu berria, **Vital Fundazioak** eta **Traspasos Kulturelek** sustatua, 14 eta 17 urte bitarteko gazteekin pornografiaren kontsumoari buruz hausnartzea helburu duena.

Proiektua

Proiektua modu originalean planteatu da, oso ohikoa ez den hausnarketarako gune batean, non ikasleak literalki eszenan murgilduta dauden eta, pertsonaien bidez, gai eztabaidagarri hau hainbat ikuspegitatik ikus dezaketen: pornografiaren industria, etika, baimena, sexualitatearen eraikuntza edo harreman osasungarriak, besteak beste. Aldi berean, BerHezi Aholkularitzaren laguntzarekin hitz egiteko aukera ere izango da.